

A black and white portrait of Azzam Al-Ahmed, an elderly man with white hair, wearing a suit and tie, looking slightly to the right.

Azzam Al-Ahmed Palestinako lehen ministro-ordea

PHOTO © TXOMIN TXUEKA

«Okupaziopean segi baino hobe dugu zerotik hastea»

Azzam Al-Ahmed Romane herrixkan jaio zen (Jenin), eta gogoan du hango olibondo bakoitza, hango meskita atzea, eta jolaserako erabiltzen zuten lur puska oro. Herritik alde egin beharrean izan zen, eta Jordanian bizi izan zen OLP (Palestinako Askatasunarentzako Erakundea) sortu eta Palestinara itzuli arte. Sei ministeriotatik pasa ondoren, lehen ministro-orde da Al Fata eta Hamasen arteko koalizioako gobernu berrian. Gobernuko bigarren gizona da, baina Haniyeh ezin denez Gazatik atera, Azzam Al-Ahmedek egiten ditu Zisjordanian lehen ministro lanak.

AMETS ARZALLUS

Argazkiak: Txomin Txueka

Amari esan zenion haurra zinela, “ama, nik politikari izan nahi dut”?

Ez, ni etxe politiko batean hazi bainintzen. Nire aita Jihad el Moqatedeko lider bat zen Palestinan, eta etxeko kultura guztia politikoa zen. Oroitzen naiz umetan hasi nintzela egunkariak irakurtzen, eta Al Fatako kide egin nintzen zazpi urterekin. Bizitzarekin batera ezagutu nuen politika, eta eskolan geundenean ere, Zisjordania Jordaniako parte zenean, gure bizitza bukaerarik gabeko manifestaldia zen.

Zure besoak ere ibiliko ziren harriak botatzen...

Hiru oroitzapen nagusi ditut. Lehena, eskolan nengoenean atxilotu nindutenekoa. 1964an, Burgibak Jericho bisitatu zuenean hitzaldi eza-gun bat eman zuen, eta oroitzen naiz nola manifestatzen ginen. Polizia atzetik segika etorri zitzaigun, eta lehen ogi labea zegoen leku batean gorde ginen, baina alferrik. 1966an israeldarrek Jenin inbaditu zutenean eraso gure etxe aurrean gertatu zen, eta ni soldadu israeldarrei begira egoten nintzen. Hirugarrena, 1967an, batxile-rraen nengoen eta okupazioaren lehen egunetan

manifestaldiak egiten ibili ginen, soldaduekin borrokan, eta harriak botatzen. Ordurako Al Fatako zelula bat osatua genuen Jeninen, Zisjordaniako Al Fatako lehen zeluletako bat. Nire familiako bat Al Fatako beso armatuan zebilen eta edozer gauza behar zuenean niri galdetzen zidan. Artean gaztea nintzen eta ez nuen inongo ekintza armatutan parte hartu, baina Palestinatik Jordaniara atera eta gero lana ugaritu zen, eta buru-belarri sartu nintzen borrokan.

Palestinarrekin sinesten al dute politikan?

Bai, uste dut orain herriaren kontzientzia pixka bat nahastua dagoela gertatzen ari denaren eta desio duenaren artean, baina ezkorrenak ere oraindik sinesten du politikan.

Baina OLP eta Al Fata ustelkeriak jota egon direla jakina da. Gaur egun zenbatekoa da ustelkeria?

Badago ustelkeria, baina oso kopuru txikian. Eskuak zikindutakoak bi eskuz kontatzen dira goi karguen artean. Gehienak bidetik kendu genituen eta beste batzuk berak apartatu ziren. Garbi esango dut, ustelkeria guri laguntzen ziguten herriek ekarri zuten. Eta orain ere, arduratsu izateko galdetzen ari zaizkigun batzuk ustelkeriari laguntzen ari dira. Ezin nezake esan zein herri diren korruptuak hautatzen dituzten laguntzaileak, baina zenbaitek nahiago dituzte korruptuak hemen. Gu alertan gaude.

2006ko hauteskundeak Hamasek irabazi zituen, eta Al Fatari kosta egin zitzaion hori liseritzea. Zuk nola erreakzionatu zenuen emaitzak jakitean?

Barne beldur bat sentitu nuen. Nahiz eta nire eremuan nik erraz irabazi nuen hauteskunde haietan, beldur nintzen benetako bizitza parlamentario bat egongo ote zen Hamasen garaipenarekin. Nik uste dut Hamasekoak beren garaia baino lehen iritsi direla, eta aski egoera arraroan. Israelek eta AEBek kale palestinarrean utzi duten etsipenak ekarri ditu.

Esarak dio herri bakoitzak merezi duen presidentea duela. Haniyeh eta Abbas dira Palestinak merezi dituenak?

Nik uste dut Palestinak hori baino gehiago merezi duela.

Bilerak bideo konferentziaz egiten dituzue, ministro gehienak Gazatik ezin aterata bizi baitira, lehen ministroa barne. Noiz egon zinen azkena lehen ministroarekin?

Gobernua osatu zenean. Baina etengabe hitz egiten dugu telefonoz.

Gobernua koaliziokoa da, baina Palestinako kaleak ez du batasun itxura handirik, batez ere Gazan. Lelo zahar batek hala dio: "Zatitu eta garaituko dituzu". Barne gatazka osoa Israelek sortua da?

Nire ustez Israelek hasieratik parte hartu du Palestinaren barne gatazka honetan, bera egon da xaxatzen. Hamas sortu zenean ere, Rabin zen defentsa ministroa, eta berak lagundu zion Hamasi sortzen eta hazten. Orain behera bota nahi dituen azpiegitura horiek denak berak zabalduak dira.

PHOTO © TXOMIN TXUEKA



PHOTO © TXOMIN TXUEKA



Palestinako ministroen bilera. Goian, Ramalako ministroak. Behean, Gazakoak, mahaiburu Ismail Haniyeh lehen ministroa dela, bideokonferentziaz komunikatuak.

Yasser Arafat omen zen palestinarr guztiak batu zitzaiekeen pertsona bakarra. Gaur egun, inork ez du hala-ko gaitasunik?

Ez dago Arafat bezalakorik. Arafat fenomeno bat zen, eta Arafaten fenomeno gaur egunean ez da existitzen. Ni bere ondoan bizi izan nintzen, auzoz auzo, hogeita bost urtean, eta Bagdaden enbaxadorea nintzenean ere bere idazkari izateko eskatzen zidan. Oso hurbiletik ezaugu nuen. Arafatek ez zuen kezka pertsonalik, bere kezka bakarra Palestina zen, eta dena emateko prest zegoen Palestinaren alde. Indar handia zuen jendea bereganara erakartzeko, baita bere etsaiak erakartzeko ere. Batzuetan pertsona xume bezala eta bestetan pertsona handi bezala ikusten nuen. Nik

beti esan izan dut: Arafat pertsonaia asko dira pertsona bakar batean bilduak.

Osloko Arafat ez dute oso gogoko palestinarr asko.

Ni han nengoen orduan, Oslon, eta gainera Oslo babesten zutenen alde, pentsamendu sionistaren erorketaren hasiera zela sumatu bainuen, eta oso baikor nengoen estatu palestinarraren sortzeari begira. Baina gertaerek erakutsi didate nire baikortasuna handiegia zela. Batez ere Rabinen heriotzaz gero. Israeleko eskuinak parlamentua eta boterea kontrolatu zituen, eta gure esperantzak lurrundu egin ziren. Oroitzen naiz Arafat



PHOTO © TXOMIN TXUEKA

hil baino bizpahiru hilabete lehenago, eskuetan azaleko gaitza zuela eta eguzkitan eseria aurkitu nuen. Berekin eseri nintzen hizketara, eta oso etsita nengoela esan nion, esperantza behera zetorkidala. Oslo amu bat bezalakoa izan zela, amerikarrek eta israeldarrek palestinarek jarritako amua OLP arrantzatu eta Palestinari lepoa bihurtzeko. Amerikak Kuwait erabili zuen bezala Irak arrantzatzeko. Eta Arafatek Saddam oso maite zuenez, nik hori esatean, urduri jarri zen, “Rabin existituko balitz...” esan zidan. “Balitz esan duzu, hori alferrik da —erantzun nion—. Nork daki Rabinen erailketa ez ote zen antzerkiko gidoian idatzitako zati bat?”. Are urduriago jarri zen, eta teman segitu zuen, baze-goela esperantza, eta bakea helduko zela. Baina sumatu nion ez zitzaidala egia esaten ari.

Orain Mahmoud Abbas munduan zehar jiraka ibiltzen den artean nazioarteak ez du Hamas parte den gobernu palestinarra onartzen. Zuzenean nolako tratua jasotzen duzue nazioartetik?

Harreman asko dugu. Ni Al Fatako ordezkari-tzako kide nintzen Mekako akordioak izenpetu genituenean, eta akordioak izenpetu eta gero sumatu nuen bazela gurekin kolaborazio baikor baterako aukera, batez ere Europa aldetik, eta amerikarrek ere esperantza piztu zitzaigun, baina astebete beranduago dena aldatu zen. Olmert eta Bushen telefonoz elkarrekin hitz egin eta konplikazioak sortu ziren. Akabo. Israelek ez du blokeoa bukatu nahi, eta amerikarrek beti men egiten dute Israelen xantaiaren aurrean. Eta gero AEBek bere eragina eramaten dute Euro-

Elkarriketaren biharamunean, urte hasieratik kobratu gabe dauden funtzionarioek protesta martxa egin zuten, eta ministroen kontseilura sartzen saiatu ziren. Azzam al-Ahmed aterata zen aurpegia ematera.

para, eta mundu arabiar guzira. Horrela lurperatzen da aterabiderako edozein aukera.

Eta noiz arte segitu liteke horrela?

Nik uste dut hiru hilabete eman behar zaizkiola egoera honi, gehiago ez, eta ez bada blokeoa bukatzen palestinarrak orain arte egindako guzia berrikusi beharko dugu; gure politika, gure gobernua, eta PANen existentzia bera. Ezin gara izan gure kasua likidatzeko okupazioaren eskuko erreminta. Lehen ministroak ere gauza bera esaten du. Nik ezin nezake gerrara deitu, eta ez dut deitzen, baina gu zerotik hasi ginen hona iristeko, eta okupazioaren menpe segitzea baino hobe izango da berriz zerotik hasia.

Eta mundu arabiarrek zergatik ez du ahotsa gehixeago altxatzen?

AEB estatutik handiena da munduan eta prest dago bere indarra edozeinen kontra erabiltzeko, baina nik uste dut Europak eta arabiarrek zerbait egin dezaketela AEB behartzeko, AEBek zerbait onartzeko, nahiz eta lehen potentzia mundiala izan.

Zuek blokeo ekonomikoak itota bizi zareten artean Israel bi miliar dolarreko kostua duen horma eraikitzen ari da Zisjordanian eta Gaza itxiz. Zer egingo ote luke zuen gobernuak bi miliar dolar (0,8 miliar euro inguru) balitu?

Buf... Ni Herri Lanen ministro izan nintzen, eta ministro nintzenean pentsatu nuen hiru hiri sortzea, eta komentatu nion Arafati ere. Bazen beste proiektu bat AEBek sortua, Nabulusetik

Jeninera autobia egiteko proiektua. Jeninetik Nabulusera 45 minutuan iritsi beharrean 20 minutuan iritsiko ginen. Programa horiek plantan jarri genituen baina lanean hasi baino lehen amerikarrek dena gelditu zuten. Eta sei milioi dolar gastatu zituzten proiektu hori prestatzen, pentsa. Nik uste guk bi miliar dolarrekin hiri oso bat eraikiko genukeela.

Posible al da emakume bat Palestinako lehen ministro edo lehendakari izatea?

Hauteskundeak irabazten baldin baditu, zergatik ez? Hemen emakumea beste herri arabiar batzuetan baino egoera hobean dago, eta emakumeak parte hartu zuen OLP sortzen. Ni emakumearen berdintasun osoaren alde nago, kargu altu guzietara iritsi dadila.

Enbaxadore izan zinen urtetan Iraken. Bagdad telebistan ikusten duzunean zer datorkizu burura?

Iraken gertatu zen guzia aurreikusia nuen nik, eta esan nien gainera amerikar buru guztiei: "Erraz okupatuko duzue, baina harritu egingo zarete gero, ez duzuelako egoera ezagutzen. Irakeko egoera soziala oso berezia da. Irakiarra oso nortasun handikoa da, bere herriaz harro dagoen pertsona, eta harritu egingo zarete sartu eta gero".

Saddam Hussein ezagutu al zenuen?

Noski, maiz egoten nintzen berekin, eta azkena 2002ko abenduaren 20an, gerra hasi baino hiru hilabete eta erdi lehenago. Milaka argazki ditut berekin atereak, baina azken oroitzapeneko argazki horretan gogoan dut zer esan zidan, literalki: "Amerikarrek erabakia daukate gerra egitea, Irak okupatuko dute, baina lasai, antolatuko dugu erresistentzia".

Zer pentsatu zenuen hil zute-nean?

Negar egin nuen, eta gaizki sentitu nintzen. Baina atxilotu zuten momentutik nekien hala bukatuko zuela.

Mendebaldean oso satanizatua dago. Baina Palestinan oso pertsona gurtua da...

Gu Saddamekin lotzen gaituena Palestina da.

Kamikaze pobreak

"Ikerketa egiten baduzu konturatuko zara kamikaze sartzen diren denak pobreak direla, eta jendea horietaz baliatzen da. Nik Hamaseko kide askorekin hitz egin izan dut eta galdetzen diet: 'Zergatik ez dituzue zuen semeak bidaltzen kamikaze? Zergatik pobreen semeak baino ez?'. Nik ez dut sekula entzun Hamaseko baten semea kamikaze sartu denik. Pobrezia da hori sortzen duena".



PHOTO © TXOMIN TXUEKA

Ni urte askoan egon nintzen Bagdad enbaxadore, eta hasieran gure harremana Baath alderdiarekin oso txarra zen, Saddam ez zen nire laguna, eta preso ere hartu ninduten segurtasun indarrek. Baina gero Arafatekin elkartu zen, eta Saddamek berak aldatu zuen gurekiko politika. Oso ondradua zen, asko laguntzen zigun, eta nik enbaxadore bezala badakit Irakek guri emandako laguntza zenbatekoa izan den; bai dirua, bai babes politikoa, eta bai armak. Une zailenetan lagundu zigun, eta azken laguntza gerra hasi baino hiru hilabete lehenago eman zigun, Arafat preso zegoenean Mukatan. Saddami errespetu handia diot nik, berak bere herria lagundu zuelako, lehenik eraiki, eta gero aberastu. Berari buruz esaten den guzia gezurra da, nik pertsona umil bezala oroitzen dut. Pentsa, bera, Arafat eta hiruak elkartu ginen batean, berak prestatu zigun afaria, eta ni ziur nago ez zuela inoiz jauregi batean lo egin.

Bushek deituko balu zure telefonora zer esango zenioke?

Esaten duzu fede gizona zarela, eta batzuetan Jainkoarengandik mezuak jasotzen dituzula, baina nik uste dut Jainkoa ezin daitekeela injustua izan. Zure politikan, aldez, ez dut gerra besterik ikusten, injustizia, eta odola, eta ez Palestinan bakarrik, ibili zaren leku guztietan, Iraken, Afganistanen, eta besteetan. Ramboren mentalitatea utzi egin behar duzu, eta ondradua izan behar duzu, lehenik zure buruarekin eta gero besteekin, eta egin ezazu esaten duzuna. Benetan demokratikoa bazara eta sinesten baduzu askatasunean, ez erabili zure esanak eta zure egiak nahi dituzun neurrirra.

Euskal Herria ere gatazka luze batean murgildua dago. Palestinatik ikusten al da Euskal Herria?

Bai, noski, eta harreman handia dugu lehendik euskaldunekin. Guk gure

askatasun ametsa dugun bezala, desio dugu euskaldunen ametsa ere gauzatu dadin. Guk gure herria nahi dugun bezala, Euskal Herria euskaldunek nahi duten bezalakoa izan dadin nahi dugu, inork ezer inposatu gabe. ■

Babeslea: Irizar






PHOTO © TXOMIN TXUEKA

Nursel Gurdilek kazetari turkiarra.

Gaza alerta gorrian

Hamar milatik gora kontatzen dira preso palestinarrak. Eta hamar milatik gora izan daitezke hamar mila eta bost, hamabost mila, edo milioi bat eta bostehun mila; Gazako biztanleria osoa. Ez da herrogei kilometro luze, eta ez da zazpi kilometro zabal. Lur luze fina dela esan daiteke. Baina fina baino egokiago dator estua. Bizitza halakoa baita, estua. Luzea ez da beti izaten. Nahiz eta kondena laburrik ez den existitzen.

AMETS ARZALLUS

Argazkiak: Txomin Txueka

EZ DA OHIKO KARTZELA. Ateratzea ez ezik sartzea ere oso zaila da. 2006ko ekainean soldadu israeldar bat bahitu zutenetik, Eretzeko muga haizea ere ez da pasatzen. Gazan senideak dituzten familia palestinarentzat ezinezkoa bihurtu da elkar ikustea, eta kazetariak ere ezin dute sartu Israelgo Gobernuak emandako baimen berezi bat izan ezean. Eta Israelen nahiago du munduak Gazan gertatzen dena ez ikustea.

Gaza gerran bizi da. Gobernua koaliziokoa den arren Hamaseko talde armatuek eta Al Fatakoek ezin dute elkar ikusi. Horrez gain botere handiko familiak bizi dira Gazan, batzuek beren milizia ere badute. Eta milizia horiek kalez kale borrokatzen dute agintea. Kontrolik gabeko egoera nahasian bizi da Gaza aspaldion. Eta hori dena gutxi balitz, Israelen F16 hegazkinetatik misilak erortzen dira. Hamaseko burukideen kontra jaurtitzen dituztela esaten da, baina behin baino gehiagotan nahastu izan da misila bidez.

Kazetari atzerritar denek ospa egin dute Gazatik. Allan Johnson zen gelditzen zen bakarreta-

koa, BBCkoa. Baina talde ezezagun batek bahitu egin zuen martxoan, eta geroztik ez da haren berri gehiagorik. Hilda ote dagoen zurrumurruak ere indar handia hartu zuen, baina apirilean zabaldu zuten bizirik dagoela. Diruagatik bahitu zutela dio jendeak. Orain, Gazan dabilen edozein bihurtu da bahitua izateko hautagai, are gehiago atzerritarra eta kazetaria baldin bada. Eta berriemaile lana egiteko kazetari palestinarrak kontratatu behar izan dituzte berri agentzia handiek. Denek, batek izan ezik. Nursel Gurdilek kazetari turkiarrak lehen bezalaxe jarraitzea erabaki zuen, Jerusalemen biziz, baina tarteka Gazara joanez, eta han aste osoak pasaz. Gauak barne.

“Hamabiak jo eta gero kalera ezin da atera, kale kantoi oro dago milizia bateko kideren bat. Bideak barrikadaz betetzen dituzte, eta zu zozen autoa gelditzen badute badakigu zer ondorio izan dezakezun. Gainera, emakumea naiz, eta horrek are gehiago zailtzen dit bidea. Baina lagun asko ditut –dio Gurdilekek–, eta eskerrak horri. Egunean zehar beti ibiltzen da gizonezko

lagun bat nirekin bizkartzain, eta gauetan fami-
lietan hartzen dut ostatu, hotelean sekula ez,
arriskutsuegia da.”.

Ekonomikoki itotzen ari da

Munduan libre dabilen bakarra kapitala da, ez da
egia txikia. Etorkinak pasa ezin diren lekuetan ere
pasatzen da fakturaren bat, pasaportetik gabe.
Baina Gazara trukaketa ekonomikoki ere ez da
heltzen. Hamas boterera iritsi denetik nazioar-
teak ekonomikoki boikotatzera deitu du, eta
horrek are eta gehiago estutzen dio lepoa Gazari.
Palestinatar asko lanera ezin joanda bizi dira. Berta-
ko komertzioak ere ia zer saldurik gabe gelditu
dira. Coca Colarik ere ez dago leku batzuetan, eta
hori ez da erraza munduan. “Tailer txiki batzuk
badira –hasperen egin du Nurselek–, baina egu-
nean hamar sekul irabaziko dituzte, bi dolar eta
erdi. Eta horrekin ezin daiteke bizitza esperantza
oso luzea eduki”. Israelen helburua Gaza, ekono-
mikoki, militarki, eta ahal duen bitarteko guztiak
erabilita, lepoa estu-estu eginda edukitzea da. Ito
arte. Soldadu israeldarra bahu zutenean, elektri-
zitate postuari eraso zion Israelek eta hilabete
osoak pasa zituzten Gazan argirik eta hozkailurik
gabe udako bero sapan. Denbora gutxiren buru,
pobrezia miseria bihurtuko da, eta miseria
arnasbide bakar izango du palestinarrak. “Kan-
poan bizi diren senideak. Palestinatar askok dute
hurbilekoren bat atzerrian, eta horiek dirua bidal-

tzen dute. Baina bankuek ere gero eta gutxiago
zabaltzen dituzte atak. Bizitza, oso pauso azka-
rrean, ezinezko bihurtzen ari da Gazan”.

Bizi ezinak erradikalizatzea berezko ondorio
du. “Lehen emakumezkoek, nahi ez bagenuen,
ez genuen zapirik erabili beharrik. Orain, lasai
ibiliko bazara, jantzi beharra daukazu. Islamis-
moa indarra hartzen ari da”. Hamasen Gober-
nuarekiko kritiko mintzo da Gurdilek, sosik ez
omen dago lan sozialerako, baina armak eroste-
ko bai. Iranek eta Siriak laguntzen dutela dio.
Baina berak ere aitortzen du Ezzedine al-Qas-
sam Hamasen beso armatuak Sderot herri
israeldarrera botatzen dituen misilak ez direla
oso baliotsuak “etxean egindako jaurtigai xume
batzuk baino ez dira. Benetako misilak Israelek
eraso horiei erantzuteko botatzen dituenak dira.
Hildako asko eragiten dute, eta etxeak txiki-
txiki eginda utzi. Arriskua eta beldurra oso zabalduta
dago”.

Baina Gurdilekek joaten segituko du hala ere.
Eretzeko mugan atea zabaltzen dion kazetari
txartelaren jabe da, eta hori ez du alferrik galdu-
ko. “Gure lana horixe delako, joan eta gure begiz
ikustea. Errazegia litzateke internetetik berriak
irakurri eta hor jartzen duena esatea. Neronek
ikusitako nahi dut zer gertatzen ari den”. ■

<http://www.argia.com/palestina>

kanalean, bidaiari buruzko ikus-entzunezkoak.

Jaso astero ARGIA etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara

Izen deiturak: _____

Helbidea: _____ Posta kodea: _____ Herria: _____

Herrialdea: _____ Jaioteguna: _____

N.A./I.F.K.: _____ Tel./Faxa: _____ e-posta: _____

Ordainketa mota: ☐ Bankuz
☐ Talotzez
☐ Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L-ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
Bankuz ordaintzekoak betetzeko soilik

Banku edo aurrezki kufra: _____

Titularra: _____ N.A./I.F.K.: _____

Titularraren helbidea: _____ Titularraren telefonoa: _____

Entitate: _____ Sukurtsala: _____ K.D.: _____ Kontu zenbakia: _____

Data: _____ Sinadura: _____

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: 142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–

Aukeratu ongi etorri oparia

☐ “Ardibidez” mahai-jolasa

☐ “888 txiste” liburua

☐ “Mokogorri” puzzleak

☐ %25eko beherapena ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:

2007ko prezioak

130 € Hego Euskal Herrian

160 € Ipar Euskal Herrian

ARGIA